

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**152/2023 Foru Dekretua, ekainaren 30ekoa, Diputatu Nagusiarena. Honen bidez Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten da 2023-2027 legegintzaldirako**

Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 23ko 10/23 Foru Arauak, 15.c artikuluan, diputatu nagusiarentzat gordetzen du aldundiaren sailak eta haien eskumen eremua ezartzeko ahalmena.

Arabako Batzar Nagusiak berrituz eta diputatu nagusia hautatuz beste agintaldi bati ekiten zaio foru erakundeetan, eta haiek gobernatu eta kudeatzeko, hala funtzionamenduan nola antolaketan, ezinbestekoa da ondoren adierazten diren neurriak hartzea.

Horregatik, dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

#### Lehenengoa

Sail hauek egituratuko dute Arabako Foru Aldundia:

- Diputatu Nagusia.
- Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa.
- Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak.
- Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza.
- Ekonomia Garapena eta Berrikuntza.
- Gizarte Politikak.
- Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak.
- Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua.
- Jasangarrtasuna, Nekazaritza eta Natura Ingurunea.
- Kultura eta Kirola.

#### Bigarrena

Hona hemen Diputatu Nagusiaren Sailak dauzkan eginkizunak eta eskumen arloak:

- erakundea ordezkatzeko,
- gobernuaren jarduna zuzentzea eta sailak koordinatzea,
- gizarte eta erakunde harremanak,
- gobernuaren bozeramailea eta komunikazioa,
- lurralde historikoa kanpoan ezagutzera ematea.

**Hirugarrena**

1. Hona hemen Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak dauzkan eginkizunak eta eskumen arloak:

- prestakuntza eta enplegu plan eta programak,
- autonomoei laguntzea,
- txikizkako merkataritza garatzea eta laguntzea,
- turismoa eta eskulangintza,
- prestakuntza jarduerak langileak kualifikatzeko, enplegua lortzeko eta Lanbide Heziketako ikastetxeak hobetzeko,
- enplegu eta prestakuntza planak garatzeko lankidetzaren sustatzea,
- funtzio publikoa,
- langileak euskalduntzea,
- zerbitzu orokorrak,
- informatika,
- arkitektura,
- ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

2. Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailari atxikitzen zaio ARABAKO KALKULU GUNEA SA foru sozietate publikoa.

**Laugarrena**

1. Hona hemen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak dauzkan eginkizunak eta eskumen arloak:

- zerga administrazioa,
- ekonomia ituna,
- finantzak,
- kontu-hartzailatza eta kontrola,
- aurrekontuak,
- kontabilitatea,
- ondarea,
- estatistikak eta azterlanak,
- Europako gaiak,
- erreklamazio ekonomiko-administratiboak,
- ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

2. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari atxikitzen zaio Arabako Lege eta Administrazio Erakundea.

**Bosgarrena**

1. Hona hemen Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak dauzkan eginkizunak eta eskumen arloak:

- legezketasun kontrola eta fede publikoa,
- lege aholkularitza eta abokatu defentsa,
- Batzar Nagusiekiko harremanak,
- herritarren arreta, erregistro orokorra eta ALHAO administratzea,
- berdintasunerako politika,
- immigrazio politika,
- lankidetzak,
- giza eskubideak,
- gardentasuna, herritarren parte hartzea eta gobernu ona,
- Arabako Foru Aldundiaren presentzia Interneten,
- datu pertsonalen babesaren arloko indarreko araudia betetzen dela egiaztatzeko barne ikuskaritza,
- euskara politikak,
- Miñoiak,
- babes zibila,
- suteak itzaltzea eta prebenitzea,
- ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

2. Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailari atxikitzen zaizkio Arabako Foru Suhiltzailerak-Bomberos Forales de Álava erakunde autonomoa eta VITORIA-GASTEIZ, ARABA MOBILITY LAB fundazioa.

**Seigarrena**

1. Hona hemen Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Sailak dauzkan eginkizunak eta eskumen arloak:

- teknologia garapena, berrikuntza eta enpresa lehiakortasuna,
- ekonomia sustapena eta enpresa-lankidetzak,
- lurraldearen sustapen eta garapen logistikoa,
- RIS3 estrategia lurraldean zabaltzea,
- industria eta zerbitzu azpiegiturak garatzea,
- enpresa-ekintzailak,
- nazioartekotzea eta kanpoko merkataritza,
- ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

2. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Sailari atxikitzen zaizkio ARABA GARAPEN AGENTZIA SA eta ENARGI Araba SAU foru sozietate publikoak.

**Zazpigarrena**

1. Hona hemen Gizarte Politiken Sailak dauzkan eginkizunak eta eskumen arloak:

- hirugarren adina,
- desgaitasuna,
- haurrak eta familiak,
- oinarrizko gizarte zerbitzuak,
- prestazio ekonomikoak,
- ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

2. Gizarte Politiken Sailari atxikitzen zaizkio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoa eta INDESA 2010 SL foru sozietate publikoa.

**Zortzigarrena**

1. Hona hemen Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak dauzkan eginkizunak eta eskumen arloak:

- errepideen plangintza, proiektuak, zaintza eta ustiapena,
- desjabetzeak,
- garraioak,
- ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

2. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailari atxikitzen zaio ARABAKO BIDEAK-VIAS DE ALAVA SA foru sozietate publikoa.

**Bederatzigarrena**

1. Hona hemen Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak dauzkan eginkizunak eta eskumen arloak:

- Obra eta Zerbitzuen eta Inbertsioen Foru Plana,
- toki erakunde finantzaketa,
- toki erakundeei laguntzea eta aholku ematea,
- lurralde plangintza eta informazioa,
- hirigintza kudeaketa eta diziplina,
- ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

2. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailari atxikitzen zaio Naturgolf SA foru sozietate publikoa.

**Hamargarrena**

Hona hemen Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak dauzkan eginkizunak eta eskumen arloak:

- nekazaritza,
- abeltzaintza,
- nekazaritza garapena eta esperimentazioa,
- landa garapena eta Europako laguntzak,
- mahastizaintza eta enologia,

- mendiak eta baso aprobetxamendu eta zerbitzuak,
- arrantza eta ehiza baliabideak kudeatzea,
- nekazaritzako azpiegitura hidraulikoak,
- uraren ziklo osoa,
- ingurumena eta paisaia,
- natura zaintzea,
- natura eremuak,
- energia berriztagarriak,
- biodibertsitatea eta animalia eta landare espezie babestuenak,
- ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

### **Hamaikagarrena**

1. Hona hemen Kultura eta Kirol Sailak dauzkan eginkizunak eta eskumen arloak:

- artxiboak eta liburutegiak,
- museoak,
- zaharberrikuntza,
- Kultura Etxea,
- hezkuntza sustapena eta kultura zabalkundea,
- argitalpenak,
- historia, arte eta arkitektura ondarea,
- kirolak,
- gazteria,
- ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak.

2. Kultura eta Kirol Sailari atxikitzen zaizkio Gazteriaren Foru Erakundea erakunde autonomoa, Kirolaraba Fundazioa, Arabako Artium Fundazioa, Santa Maria Katedrala Fundazioa eta Añanako Gatz Harana Fundazioa.

### **Hamabigarrena**

1. Hurrengo paragrafoan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, oraingo zuzendaritza, zerbitzu, atal eta bulegoek orain arte aginduta dauzkaten eginkizunak beteko dituzte.

2. Hala ere, honako aldaketa hauek egiten dira haien atxikipenean, mendekotasun organikoan eta izenetan:

2.1 Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailari atxikitzen zaizkio Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza eta haren Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzua.

Era berean, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailari atxikitzen zaizkio honako zerbitzu hauek: Miñoiak, Aldundiaren Idazkaritza Orokorra, Lege Aholkularitza, Arau Garapena eta Batzar Nagusiekiko Harremanak, eta Idazkaritza Teknikoa eta Herritarrak Atenditzea.

2.2 Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailari atxikitzen zaio Erronka Demografikoaren Zuzendaritza, haren mendeko zerbitzuarekin, bai eta Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua ere, bi atal hauekin: Hirigintzako Plangintza, Kudeaketa eta Diziiplina Atala eta Lurralde Informazioaren Atala.

2.3 Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailari atxikitzen zaio Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza, Natura Ingurunearen Zuzendaritza izena hartuta, ondoko zerbitzu eta atal hauekin:

- Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua.
- Ingurumen Ebaluazioaren Atala.
- Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua.
- Obra Hidraulikoen Atala.
- Ingurumen Prebentzioaren Atala.
- Natura Ondarearen Zerbitzua.
- Naturaguneen eta Biodibertsitatearen Atala.
- Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua, aurrerantzean, Natura Inguruneko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzua deituko da.

#### **Hamahirugarrena**

Sailen egitura organikoak onetsi ondoren, Foru Gobernu Kontseiluak baliabide ekonomikoen eta foru langileen berraxikitzea onetsiko du, foru dekretu honen bidez haien eginkizunak sail desberdinetan banatu diren administrazio unitateen kasuan.

#### **Hamalagarrena**

Sailletako foru diputatuei dagokie, indarrean dagoen legediarekin bat etorritz, beren sailei atxikitako erakunde autonomoak eta foru sozietate publikoak zuzentzea.

#### **Hamabosgarrena**

Foru Gobernu Kontseilua izan ezik, foru administrazioko gainontzeko kide anitzeko organo guztiek egun dituzten kideekin jarraituko dute beren eskumenerako gaitan jarduten. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 10. artikuluan Foru Gobernu Kontseiluari esleitzen dizkion ahalmenak.

#### **Hamaseigarrena**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari dagokio foru dekretu honetan ezarritakoa betetzeko egin behar diren aurrekontu eragiketarako egitea, baita sail berrien kodifikazioa eta sailkapen organiko eta ekonomikoa egokitzea ere, ahal den neurrian orain artekoak errespetatuz.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indarrrik gabe uzten dira diputatu nagusiaren foru dekretu hauek: 324/2019 Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa; 345/2019 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, eta 306/2020 Foru Dekretua, irailaren 30ekoa, bai eta foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

### **AZKEN XEDAPENA**

ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 30a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*